

{ analisia } **Dabid Lazkanoiturburu**

Erreinu jihadistista Sahelen

Azaroak 7, Burkina Fasoko ekialdea. Bounougouko urre meategia ustiatzen duen Kanadako Semafo multinazionalaren konboi bat segada batean erori da. Bost autobusetan zihoazen bertako langileak eta militarrek. Azken bost urteotako erasorik odoltsuena da eta 37 hildako eta 60 bat zauritu eragin ditu. Bizirik atera diren lekukoen esanetan, erasotzaileak asko

Jihadistak nagusi dira Saharako basamortuaren ataurrean, Sahelen. Malik eta Burkina Fasok ia lurralde osoaren kontrola galdu dute eta Frantziako soldaduak eta bere aliatuak ez dira erasoaldiari aurre egiteko gai.

ziren eta militar jantziak eta *kalatx*-ak (kalaxnikov fusilak) zeramatzaten.

Azaroak 2, Mali. Gutxienez 53 soldadu hil dira Indelimaneko hiriko kuartelaren aurkako erasoaldian, Nigerreko mugatik gertu dagoen Menaka-ko eskualdean. Erasoa *pick-up* eta motorretan iritsi ziren 100 bat jihadistak egin zuten. Kuartela kontrolpean hartu ondoren, armategiak ebatsi, muga zeharkatu eta Nigerrera ihes egin zuten. Azken urteotako erasorik bortitzena da hau ere.

Baina ez bakarra. Aurreko hilabetean, Malik Burkina Fasorekin duen mugatik gertu, Boulikessy-ko herrian, bi kuartelen aurka eraso egin zuten jihadistek eta 40 soldadu hil zituzten.

Abuztuan Armada burkinafasozarrak inoiz jasan duen erasorik gogorrena jasan zuen Koutougou izeneko iparraldeko herrian. 24 hildako izan ziren.

Eguneroko kontua

Jihadisten mehatxua eguneroko kontua da Sahelen, eta batez ere aipatu ditugun bi “estatuetan” (komatxo artean, bertako gobernuek ez baitute inondik inora kontrolpean lurraldearen gehiengoa). 2015etik hona izugarrizko indarra hartu dute jihadistek Burkinan. Iparraldean jo zuten aurrena,



Kasko urdin senegaldarrak patruilan Sahelean. Marco LONGARI | AFP

gero ekialdean. Egun, hegoaldean eta mendebaldean egoera gero eta arriskutsuagoa da.

Iturri ofizialen arabera, erasoaldiaren ondorioz hildakopak 600 dira, baina giza erakundeek dagoeneko milatik gora direla salatu dute.

Burkina Fasoko «Estatua ia-ia Uagadugu hiriburura mugatzen da», dio behatzaille batek; herrialdearen erdia, ipar eta ekialdea, galdutzat jotzen dute eta errepedeak eta pistak lehergailu-tranpaz josita daude. Talde jihadistak lasai daude bertan, herritar asko alde dituztelako eta horiek tropen mugimenduen berri garaiz ematen dietelako.

Ipar-ekialdean salbuespenegoera ezarri du Gobernuak, baina Djibo eta Dori hirietan setiopean daudenak militarrek dira. «Eguerdiko ordu bietatik aurrera denak, poliziak, militarrek, jendarmeak, funtzionarioak... Armadaren kuartelean babesten dira», kontatu du izena eman nahi ez duen polizia batek.

300.000 herritarrek beren etxea utzi eta ihes egin behar izan dute, ez jihadisten eraso- en ondorioz soilik, baita Armadaren errepresioak bultzatuta ere.

Burkina Fasoko hegoaldeko beste erdian (hiriburua barne) egoerak okerrera egin du. Bobo-tour operadoreek alde egin dute Dioulasso herri tu-



ristikotik eta ingurutik, jihadistek eraso egingo duten beldurrez.

«2005ean lapurrak aritzen ziren bidegurutzeetan. Egun desagertu egin dira, baina jihadistak daude. Jende bera da eta oihanean ezkututzen dira», kexu da laguntza humanitarioko ekintzaille bat. Gobernuak salatu duenez, salafisten predikuak gero eta ozenago entzuten dira hegoaldean.

Malin Armadak atzera

Malin egoera ez da hobea. Egun hauetan Armadak atzera egin du eta sakabanatuen dituen posizioak utzi ditu, soldaduak «erresistentzia-gu-neetan» bilduz. Horrela, bada, jihadisten etengabeko erasoaldiei ezin aurre egin eta Burkina Fasorekin eta Nigerrekin duen mugatik alde egin du Maliko Gobernuak, Ibrahim Boubakar Keita pre-

Jihadista bati Malin ateratako argazkia.
Marco LONGARI | AFP

sidenteak hori ukatu badu ere.

Nola iritsi dira egoera honetara Saheleko gobernuak? Dudarik gabe, geografiak badu bere pisua eta jihadistak herrialdeen arteko muga fisikorik gabeko basamortuan arraina uretan bezala mugitzen dira.

Hala ere, basamortua beti egon da hor. Beraz, jihadisten arrakasta ulertzeko talde desberdinen arteko koordinazio eta batasuna kontuan hartu behar da.

Indelimaneko erasoaldiaren inguruan, adituak bat datoz atzean JNIM erakundea omen dagoela; Islamaren eta Musulmanen Aldeko Fronteak atzean utzi zituen 2017an jihadisten arteko tirabirak eta liskarrak eta bere baitan bildu zituen Ansar Dine jatorriz mugimendu tuareg-a, Magreb Islamiarreko Al-Qaeda (AQMI) eta Macinako Kati-ba taldea.

Ansar Dineko Iyad Ag Ghaly da JNIM fronteko buruzagia. Agintari tuareg honek Maliko iparraldeko Azawad lurralde tuarega bereganatu zuen 2012an. Frantziako Armadak “Serval” izeneko operazioa jarri zuen martxan, Bamakoko gobernuak porrot egin ez zezan.


Koalizioan dago Mojtat Belmojtat aljeriarra ere, askotan hiltzat jo duten Mujao-ko agintaria (Mendebaldeko Afrikan Batasun eta Jihadaren aldeko Mugimendua). Belmojtat-ek hainbat talde bildu zituen 2015ean, Mujao eta Al-Mourabitun tartean, AQMIko ‘Saharako Emirerria’ sortzeko. Bere koalizioa JNIMen baitan dago.

Koalizio jihadista honek hartu ditu bere gain azkenaldian Sahelen gertatu diren eraso eta atentatu gehienak, baina gehiago ere badaude.

2015ean, Iraken eta Sirian indarrean zegoen ISISen kali-

Jihadisten mehatxua Afrikako Sahel eskualdean

Al-Qaedaekin edota Estatu Islamikoarekin bat egin duten taldeak indartu egin dira Saheleko herrialdeetan. Horrela bada, kontrolpean hartu dituzte zenbait eskualde, batez ere Malin eta Burkina Fason.



Iturriak: France 24, ISPI, Reuters, Nazio Batuen Erakundea

GN | GARA

fa-herriari atxiki zitzaion Sahara Handiko Estatu Islami-koa izeneko talde edo sukurtsala. Adnan Abu Walid Saharai da buruzagia. Mendealdeko Saharan jaio zen Abu Walid eta Mujao-ren baitan borroka egin zuen Azawadeko erasoaldian. Belmojtarrek Al-Qaedaekin zituen harremanak ez ziren haren gustukoak eta talde propioa eratu zuen, berriki zendu den Abu Bakr al-Bagdadi ISISen kalifari men eginez.

Sahara Handiko Estatu Islamiakoak (EIGS) Maliko ipar-ekialdean dagoen Menakako eskualdean du gotorlekua eta mugaz bestaldera, Niger alde-
ra, ere badu indarra.

Orain arte bere gain hartu duen eta oihartzun handiena izan duen ekintza 2017ko urrian Tongo Tongon, Nigerrereko mugan, lau soldadu estatubatuarren eta beste lau maliarren heriotza eragin zuen atentatua izan da.

ISiSi Nigeriako Boko Haram, «Afrikako talibanak», gehitu zitzaizkion. Den den, eta azken hilabeteetan, ISiSen kalifa-herriaren porrotaren ostean Siriatic eta Iraketik hainbat jihadistak Saharako frontea indartzera iritsi badira ere, Al-Qaeda inguruan dagoen JNIM da indartsuena eta koalizio honek egin ditu herrialdeko hiriburuetan hotel eta jatetxeen aurkako atentatuak eta NBEaren eta mendealdeko mili-

tarren aurkako segadak. Bere eragina Sahel osora hedatu da eta koalizioa osatzen duten taldeek 'intelligentzia', teknologia eta armategiak partekatzen dituzte.

Hori dela eta, ISIS atzean utzi eta garaile ateratzen ari da Al Qaeda Sahelen, jihadist-en barne liskarrean.

Jihadismoak Sahara Handian duen indarra ez da berez etorri eta baditu aurrekari historikoak eta, nola ez, erantzukizun politikoak.

Horretarako, Aljeriako «hamarkada odoltsua» (1991-

2001) gogora ekarri behar da, hauteskundeak irabaziko zituela-eta FIS alderdi islamista legez kanpo utzi zutenean. Ondorengo gerra zibilak 200.000 hildako eta bake akordioa sinatu ez zuten hainbat talde utzi zituen.

Libiako matxinadak eta ondorengo krisiak kaosa zabaldu zuen herrialde osoan.

2012-13an Armada frantse-
sak Azawad Maliko iparralde
tuarega kontrolpean zuten
jihadistei aurre egiten ari zen
une berean, Burkina Faso ho-
rien gotorleku bilakatu zen

eta orduko presidente Blaise Compaore-k bere burua bitartekari gisa aurkeztu zuen.

Hori gutxi balitz, eta estatu-kolpe baten beldurrez –azkenean herri matxinada batek bota zuen boteretik 2014an–, Compaorek armak kendu zizkion Armadari, bere guardia presidentziala indartuz.

Estatu ahulak

Egungo presidenteari, Marc Roch Christian Kaborek, ez dio arazoari aurre egin eta

soldaduek ez dute ez armarik ez soldatarik jasotzen. Gainera, Armadako goi kargudunak hiriburuan geratzen dira eta soldaduek aginterik gabe egin behar diete aurre armaz ondo hornituta eta motibatuz dauden jihadistiei.

Frantziako eta Mendebaldeko armadak ez dira gai izan orain arte mehatxua uxatzeko. Aitzitik, arrotzen presen-tziak askorengan haserrea eragin eta auzia are gehiago korapilatzen du.

Azkenik, Afrikako kolonizazioak utzi zituen zauriek Sahel-eko estatuak ahulduta mantentzen dituzte.

Malin peuls eta dogon-banbara tribuak mokoka ari dira 2015etik. Lehenak artzain eta abeltzainak dira eta bigarreneak, nekazariak. Sarraskiak eta elkarren arteko pogromak ugaltu egin dira eta bi taldeek autodefentsarako mizliak eratu dituzte.

Burkina Fason ere jihadist-
ten erasoaldiak komunitate-
en arteko tentsioak areagotu
ditu, batez ere iparraldearen
eta hegoaldearen artean. Bur-
kinak Malirekin eta Nigerre-
kin dituen mugetan kokatzen
den Liptako izeneko antzina-
ko erreinuko emirrak, Osman
Amoru Dickok, salatu duen
bezala, «50 urtetako desoreka
dago. Iparraldea ahaztua izan
da eta gaztediari irtenbideak
eskaini behar zaizkio».

Jihadisten besooten eror ez
daitezen.